



ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

7/2021 LT – LGAKZ

I.- AURREKARIAK

Lehendakaritzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak izenburuan adierazten den dekretu-proiektuari buruzko legezketasun-txostena eskatu digu. Dekretu-proiektu horren testuarekin batera espedientean honako agiri hauek daude:

- 45/2020 Dekretua, abenduaren 17koa, Lehendakariarena, dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duena.
- 45/2020 Dekretua, abenduaren 18koa, Lehendakariarena, dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzen duena.
- Dekretu-proiektuaren azalpen-memoria, Lehendakaritzaren idazkari nagusiak izenpetua.
- Txosten juridikoa, ekimena sustatzen duen Lehendakaritzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak egina.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Osasun Sailaren irizpen juridikoa
- Ekonomia eta Ogasun Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren alegazioak.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren alegazioak.

Hala ere ez dago Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena. Izan ere, dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duen 45/2020 dekretuak azaltzen du txosten hori nahitaezko dela, Gobernantza Publiko eta



Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 11.artikuluaren ezarritakoaren arabera.

Gure txosten hau jarraian adierazten diren arau hauetan ezarritakoan oinarritzen da:

- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (5.1 a artikulua).
- 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena (11.1 eta 2 d artikulua).
- 18/2010 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (7.1 i artikulua).
- 71/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa (14.1 c artikulua).

II.- DEKRETUAREN AZTERKETA

A). Eskumenak

Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 2. eta 16. paragrafoen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du bere erakundearen antolaketan, araubide juridikoan eta funtzionamenduan, bai eta ikerketa zientifiko eta teknikoan ere.

Horren ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen irailaren 6koa, Lehendakariarena, 18/2020 Dekretuaren 3.1 a. artikulua arabera Lehendakariari dagokio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana bultzatzea eta koordinatzea eta Berrikuntza Funtsekin kudeatzea. Honetaz gain, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren 4.a artikuluaekin bat etorriz Lehendakariari atxikita dago Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuak arautua.

B) Dekretua bideratzeko prozedura

Aztergai dugun dekretu-proiektuak xedapen orokorren izaera du. Beraz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotako nahitaezko izapideak bete beharko ditu.

Espedientean prozedura hasteko agintzen duen dekretua eta aldez aurretik onartzen duen dekretua jasota daude. Hortaz, bete egiten da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 5. eta 7.1 artikuluetan ezarritakoa.

Jasota daude, baita, azalpen-memoria eta txosten juridikoa. Txosten juridikoak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7.3 artikuluan zehaztutakoa betetzen du.

Era berean, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena dago, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan azaldutakoa betez.

Arestian esan bezala, ordea, ez da betetzen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 11.artikulua, ez baitago Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena.

Azkenik, gure txosten juridiko hau egin ondoren, kontrol ekonomikoko bulegoaren txostena bakarrik geratuko litzateke.

Bestalde, dekretu-proiektu honek bete behar ditu Gobernu Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an onartutako lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak. Kasu honetan, arau aldatzailea denez, zazpigarren jarraibide aplikatu behar da. Horrek, bigarren atalean, ezartzen du arau aldatzailearen izenburuan ez direla jasoko aldatutako lege edo dekretuen data eta zenbakia. Era berean, izenburuan beharrezkoak ez diren errepikapenak saihestuko direla dio. Adibidez, ez da esango "... (r) i buruzko Dekretua aldatzen duen Dekretua", baizik eta... (e) ko Dekretua aldatzeko Dekretua ". Hori dela eta, titulua aldatzea proposatzen da, aipatutako zazpigarren jarraibidea errespetatuz.

D) Dekretuaren edukia

Dekretu-proiektuaren xedea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren osaera aldatzea da, bertan parte-hartzea zabaltzeko, espezializazio adimendunaren arloak egokitzeko prozesuan sakontze aldera.

Dekretu honek honako egitura dauka: zioen adierazpena, bi artikulua eta azken xedapena.

Lehenengo artikulua bitartez Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretuaren 4.1 artikulua aldatzen da eta organo horren kideak zehazten dira. Aipatzekoa da euskaren bertsioan akats bat dagoela eta artikulua hasieran Zientzia hitza falta dela.

Bigarren artikulua azken xedapenetako lehena aldatzen du, indargabetutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari egiten zaion aipamena eguneratzeko.

Bukatzeko azken xedapenak indarra noiz hartuko duen ezartzen du, eta adierazten du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

III. ONDORIOA

Adierazitako ohartarazpenak eginda, aldeko irizpena ematen diogu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretu aldatzeko dekretu-proiektuari.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.